



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKARAREN  
GOGOETAGUNEA

# XXIX. JAGON jardunaldia

Euskararen biziberritzea: arlokako etorkizun ikuspegia

## Lan mundua eta aisialdi antolatua

**Bilbo**

Euskaltzaindiaren egoitza

(Plaza Barria, 15)

**2024ko azaroak 28**

izen-ematea:

**azaroaren 26a baino lehen**

+ 34 944 158 155  
[info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus)

**BABESLEAK**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ORAIN

**LABORAL**  
kutxa



**LAGUNTZAILEAK**



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Euskaltzaindiaren baitako **EUSKARAREN GOGOETAGUNEAK** zeregin bat hartu du datozen urteotarako: euskararen bisio edo etorkizun-ikuspegia lantzea, eta etorkizun-ikuspegi horretara norabidetutako arnas luzeko estrategia nagusiak marraztea. Bisio edo etorkizun-ikuspegi bizigarri eta bideragarria ekoiztea eta arnas luzeko estrategia nagusiak marraztea berebiziko lana da euskararen biziberritze prozesuaren abagune honetan, tentuz eta jakitez egin beharrekoa.

2022an euskararen biziberritze prozesuaren etorkizun-ikuspegiaren erdiguneko ponentzia landu ondoren, 2023 eta 2024an etorkizun-ikuspegiari buruzko hainbat arlotako ponentziak landu dira. lazko Jagon jardunaldian aurkeztu ziren horietako bi, eta aurten beste bi arlo landuko dira. Bata, aisialdi antolatuko txostena, Gogoetagunearen barruan landua: aisialdi antolatuaren edo hezkuntza ez-formalaren arloari dagokiona. Beste arlo funtsezko bat, lan eremuari dagokiona, bere aldetik Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak landu du azken bi urteotan, eta txosten hori aurkeztuko da jardunaldian. Aurkezpenak entzun, iritzia eman eta bi arlo horien norabideaz elkarrekin pentsatzeko antolatu dugu aurtengo Jagon jardunaldia.

## EGITARAUA

**09:15-09:25**

*hizlaria  
hizlaria  
hizlaria*

Hasiera-ekitaldia

**Andres URRUTIA** [euskaltzainburua]  
**Aitor ALDASORO** [EJko Hizkuntza Politikarako sailburuordea]  
**Sagrario ALEMAN** [euskaltzain osoa, Jagon sailburua]

**09:25-09:40**

*hizlaria  
aurkezlea*

Euskararen Gogoetagunea: egoera eta ponentzien kokapena

**Jon SARASUA** [euskaltzain urgazlea; EGren koordinatzailea]  
**Irati ICIAR** [UEUko zuzendaria; Sustapen batzordeko kidea]

**09:40-10:10**

*hizlaria  
aurkezlea*

Lan-eremuko Plan Gidarirako ardatzak

**Josune ZABALA** [EJko Ikerketa eta Koordinazio zuzendaria]  
**Patxi JUARISTI** [euskaltzain urgazlea, Sustapen batzordeko kidea]

**10:10-10:45**

*hizlaria  
aurkezlea*

Aisialdi antolatuaren ponentziaren aurkezpena

**Iñaki ARRUTI** [txostengilea]  
**Josune ARIZTONDO** [GOGOETAGUNEAREN kontraste-taldeko kidea]

**10:45-11:15**

Atsedena/kafea

**11:15-12:45**

Talde lana: ponentziaren eztabaida

**12:45-13:15**

Taldeetako idazkarien laburpena

**13:15-13:20**

Azken hitzak

**Sagrario ALEMAN** [euskaltzain osoa, JAGON sailburua]